



## **AMEZKETAKO UDALA**

### **FERNANDO AMEZKETARRA -KOTXETA-**

#### **Fernandok ondo ezagutzen zuen etxaldea**

Etxe inguru hau asko estimatzen zuen Fernandok. *Torrea* esaten zaiona nahikoa hurbil dago, eliza bidean.

Fernandoren lagun minetako bat, Juan Ignazio Urretabizkaia erretorea, *Garagartzanean* –egun Erretoretxe zahar deitzen diogu– bizi zen. Bertsolariak ziren biak ala biak ere. Etxe horretan bertsoan behin baino gehiagotan egingo zuten, lasai ederrean.

Seguru asko, Amezketak bere historian ezagutu duen erretorerik sonatuena gertatu zen don Juan Ignazio. Esames ugarien sortarazitako gizasemea, batez ere Hirurteko Libelararen egunetan (1820-1823). Amezketako herriak berebiziko aldakuntza ezagutu zuen elizgizonak egindako ahaleginari esker.

Amezketan jaio zen 1780ko urtarrilaren 27an. Bere gurasoak: Juan Bautista Urretabizkaia alegiarra eta Jose Ignazia Garagartza Lantz amezketarra.

Amezketan bertan egin zituen lehen ikasketak, eta segidan Alegian ere bai. 1805ean, Iruñean ikusiko dugu apaiz-ikasketak bukatzen. Erabat bukatu gabe artean, baina Amezketako Erretoretzaren jabe egin nahirik bere ordezkaritza:

*En la ciudad de Pamplona a diez y seis de agosto de mil ochocientos y cinco, ante mi el escrivano Real y testigos que abajo hiran nombrados, pareció presente D. Juan Ignacio de Urreta Vizcaya (sic) tonsurado natural de la Villa de Amezqueta hallado en esta dicha Villa y certificado de su derecho dijo precedente examen sinodal ad curam animarum, á sido aprobado para el derecho y ejercicio de la Rectoria de la Yglesia Parroquial de dicha Villa de Amezqueta, y para que tome la posesion quieta y pacifica se ha mandado despachar a su favor titulo y colacion en forma y respecto de que sus ocupaciones y pretension de ordenes le impiden y embarazan poder ausentarse de esta ciudad.*

Azken hilabeteak Iruñean eman eta berehala etorri zen Juan Ignazio Urretabizkaia Amezketara, Erretoretzaren jabe egitera. 1806ko apirilaren 10tik aurrerako bataio agiriak eta gainerako guztiak berak izenpetuko ditu.

Etxalde honetako bigarren etxe interesgarria URRETANEA da. 1890an eraiki zuen don Juan Ignazio erretorearen aitak. Ez dezagun ahaztu urte hartantxe ezkondu zela Fernando, eta ehun metrora dagoen Intxausti etxean jarri zela bizitzen. Amezketatik kanpo bertsoara joan ohi zenean hemendik behera joaten zen gure bertsolaria.

1834koa da Juan Ignazio Urretabizkaiaren azken sinadura Amezketako artxiboan. Ez dakigu non hil zen.